

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### KANPEZUKO UDALA

#### **Landa ondasun higiezinaren gaineko zerga kobratzea**

2020ko irailaren 1etik 2020ko urriaren 31ra arte, egun biak barne, borondatezko epean ordaindu ahal izango dira landa ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2020ko ordainagiriak.

2020ko azaroaren 1etik aurrera, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, bat etorritik dirubilketa arautegi orokorrarekin.

Aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin behar, helbideratze kontu berbera badute.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2020ko irailaren 7an kobratuko zaie.

Ordainketa helbideratu gabeak edozein banku bulegotan ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da hau.

Santikurutze Kanpezu, 2020ko uztailaren 17a

*Alkatea*

*IBERNALO BASTERRA TXASKO*